

SARRERA

Getxoko Udala lan garrantzitsua egiten ari da sustapen ekonomikoaren eremuan, azken urteotako legegintzaldiko planetan islatzen den bezala. Lan hori gauzatu da udalerriko enpresak profesionalizatzera bideratutako jardueretan, hainbat prestakuntza- eta aholkularitza-zerbitzu eskainiz eta zenbait proiektu eta programa espezifikotan parte hartuz. Burutzen ari diren helburuak lortzeko beste urrats bat eman nahian, beste ekintza bat egitea proposatzen da udalerriko merkataritza-jarduerarekin lotutako merkataritza eta zerbitzu pertsonalen establezimenduak aintzatesteko, sustatzeko eta ikusarazteko: GETXOKO MERKATARITZA SARIAK.

Ildo horretan, kontuan hartuta saltokiak eta zerbitzu pertsonalen enpresa txikiak, besteak beste, Getxoko garapen ekonomikoaren motorra direla, bai enplegua sortzeko duten gaitasunagatik, bai udalerriaren dinamismoa eta garapen ekonomikoa bultzatzeko duten gaitasunagatik, bigarren urtez jarraian jarri dugu martxan deialdi hau, tokiko merkataritzari balioa emateko asmoz, 6 kategoriatan egiten duten lana eta dedikazioa aitortuz.

GETXOKO MERKATARITZA SARIAK pertsona fisiko edo juridikoei emango zaizkie, Getxoko udalerrian txikizkako merkataritza-jarduera edo herriko merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuak garatzen dituzten enpresa txiki eta ertainei, betiere honako kategoria hauetakoren batean nabarmendu badira:

1. TRADIZIOA ETA IBILBIDEA
2. MERKATARITZA SORTU BERRIA - EKINTZAILETZA
3. 360º IRAUNKORTASUNA
4. BERRIKUNTZA. NEGOZIO-EREDUAREN ERALDAKETA
5. EKIN MERKATARI SARIA
6. GETXOKO ARIMA

1. art. DEIALDIAREN XEDEA

GETXOKO MERKATARITZA SARIen deialdiaren helburua da tokiko saltokien lan profesional eta soziala balioestea eta aintzatestea, merkataritza-jardunbide egokiak ezagutzera emanez, ibilbide luzea eta belaunaldi-erreleboa baloratuz, bai eta ekologikoki eta sozialki arduratsuak diren merkataritza-ekimenak ere, merkataritza-lankidetzako ekintzen adibideak emanez, enplegua eta aberastasuna sortzeko eragile gisa betetzen den funtzioa nabarmenduz edo merkataritzako berrikuntza- eta eraldaketa-modalitateak ikusaraziz. Horiek guztiek laguntzen dute Getxo herri lehiakorragoa egiten, herritarren eta bisitarien zerbitzura dagoen eskaintza zabala izanik.

2. art. KATEGORIAK

1. TRADIZIOA ETA IBILBIDEA: 20 urte baino gehiagoko ibilbide komertziala duten saltokiei zuzenduta dago, garai berrietara egokitu direnei, beren funtsari eutsiz eta sustraiei uko egin gabe. Ibilbide luzea izatea eta urteetan zehar garai berrietara egokitzea baloratuko da, baita belaunaldien arteko erreleboa ere. (Belaunaldi-erreleboa edo negozioaren transmisioa jatorrizko esentzia beraz).
2. KOMERTZIO SORTU BERRIA – EKINTZAILETZA: Azken 3 urteotan ireki dituzten komertzioei zuzenduta dago, bereziki beren inpaktuagatik, originaltasunagatik, ekimenagatik, ahaleginagatik, negozio-ereduagatik eta abarrengatik nabarmendu diren ekintzaileei.

3. 360º IRAUNKORTASUNA: Kontsumo arduratsua edo ingurumenarekiko eta gizartearekiko errespetuzkoa sustatzen duen negozio-eredua duten saltokiei zuzendua, betiere GJHekin (Garapen Iraunkorreko Helburuak) lotuta daudenei, bai hurbileko produktuak, produktu ekologikoak eta sasoikoak saltzeagatik, bai ekonomia zirkularrarekin lotutako balioak lortzeagatik, bai Zero xahutzeagatik, bai hondakinen kudeaketa egokiari buruzko ekimenak egiteagatik, bai energia edo ura aurrezteagatik, bai gizarteratze-programak garatzeagatik, bai aukera-berdintasuna sustatzeagatik…
4. BERRIKUNTZA. NEGOZIO-EREDUAREN ERALDAKETA: Beren produktuei balioa gehitu dieten zerbitzuak arrakastaz eskaini dituzten saltokiei zuzendua, baina ez soilik teknologia mailan, izan daiteke salmenta modu edo zerbitzu berrien bidez, salmenta puntuan egokitzapenak eginez eta abar ere.
5. EKIN MERKATARI SARIA: udalerriko enpresa-parkea dinamizatzearekin lotuta dauden saltokiei zuzendua, hain zuzen hainbat jarduera eta programatan parte hartuz edo lankidetzan jardunez: KaiShop, GetxoAktibaTU!, Gabonetako kanpainak, Getxo Bono eta Izakinen Merkatua, elkarteek antolatutako dinamizazio-kanpainak eta tokiko erosketa sustatzeko banakako kanpainak, aholkularitza-programak...).
6. GETXOKO ARIMA: Eguneroko kontsumoa duten hurbileko saltokiei zuzenduta dago, edozein dela arrazoia funtzio soziala betetzen dutenei: beren ezarpenagatik eta beren identitateagatik, zerbitzu bokazioagatik, berezitasunagatik (bertako artistak hartzen dituztelako, artisau-produktuetarako txokotxuren bat dutelako, artistenetarako...), bezeroei arreta emateko duten moduagatik eta Getxoko ikur izateagatik.

3. art. HARTZAILEAK

Kategoria guztietan ezinbestekoa izango da establezimendu hautagaiek Getxoko udal-eremuan jardutea eta herriko enpresa-sarearen parte izatea: merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen sektorea.

4. art. HAUTAGAITZAK

AURKEZPENA

GETXOKO MERKATARITZA SARIETARAKO hautagaiak honako hauek proposatu ahal izango dituzte:

- Udalerriko merkatarien elkarteak.
- Tokiko negozioak.
- Getxoko herritarrak.
- Getxoko Udaleko Ekonomia Sustapen Arloa eta beste arlo batzuk (Komunikazio Arloa...).
- CECOBI, Bilboko Merkataritza Ganbera, Eusko Jaurlaritza, Garapen, OTCak...

Epaimahaiak bere epaia eman ahal izateko, hautagaien merezimenduak ahalik eta argien adierazi beharko dira. Horretaz gain, epaimahaiak berak egiaztatu ahal izango ditu merezimendu horiek.

EPEA

Aurretik definitutako erakunde fisikoek eta/edo juridikoek 2026ko **abenduaren 4a arte** aurkeztu ahal izango dituzte hautagaitzak.

DOKUMENTAZIOA

Hautagaitzak aurkezteko, hautagaitzarako fitxa bete beharko da aurkezten den negozioaren kategoriarako, eta merezimenduak ahalik eta argien adierazi, oinarri hauetako 2. artikuluaren arabera. Establezimenduaren hautagaitza justifikatzen duen beste edozein azalpen eta informazio gehitu ahal izango dute.

Hautagai-inprimaki bakoitzean kategoria bakarrerak0 aurkeztu ahal izango da. Negozio bera kategoria baterako baino gehiagorako proposatu nahi bada, edo pertsona batek negozio baterako baino gehiagorako hautagaitzak aurkeztu nahi baditu, fitxa berri bat aurkeztu beharko du aldi bakoitzean.

Hautagaitzak bidaltzeko fitxarako sarbidea eta deialdiari buruzko informazio orokorra Getxoko Udalaren webgunean egongo da eskuragarri. Edozein kontsulta egin daiteke 944660140 telefonoan edo getxolan@getxo.eus helbide elektronikoan.

5.art. HAUTAGAIEN AUKERAKETA

Hautagaitzak aurkezteko epea amaituta,

1.- Inskribatutako hautagai-zerrenda guztietatik, Getxoko Udaleko Ekonomia Sustapen Arloak, idazkaritza teknikoarekin batera, proposamen- eta aurre-hautaketaren txostena egingo du, kategoria bakoitzeko gehienez 5 hautagai izango duena, eta epaimahaiari bidaliko dio.

2.- Epaimahaiak aukeratuko ditu hautagai irabazleak. Epaimahaiaren erabakia ezeztaezina izango da.

6. art. EPAIMAHAIA

- Algortako Dendak elkarteko pertsona bat
- Getxo Enpresa elkarteko pertsona bat
- Romo Bizirik elkarteko pertsona bat
- Erakunde hauetako 2 kide: Bilboko Merkataritza Ganbera, edo Eusko Jaurlaritzako teknikaria, edo Bizkaiko Foru Aldundia, edo hiriko merkataritza-jarduerarekin lotutako pertsona.

Botoa emateko aukera barik:

- Sustapen ekonomikoa
- Laguntza teknikoa

Epaimahaiaren eginkizuna izango da aurkeztutako hautagaien merezimenduak aztertzea, ebaluatzea eta, ondoren, sarirako proposamena egitea, kontuan hartuta sariaren helburuak eta pertsona edo erakunde hautagaiaren jardueraren kalitatea eta ibilbidea.

Hausnarketa horren ostean, epaimahaiak saritutako establezimenduak aurkeztuko ditu.

Epaimahaiak ohorezko aipamenak proposatzeko eskubidea izango du.

7. art. MERKATARITZA IRABAZLEAREN AITORPENA

Merkataritza-establezimenduei horretarako antolatutako ekitaldi publikoan emango zaizkie sariak. Ekitaldia behar besteko aurrerapenaz iragarriko da, behar bezala antolatzeko eta zabaltzeko.

8. art. SARIEN EDUKIA

Sari-kategoria guztiek garaikurra edo saria jasoko dute. Getxoko Udalak, bestalde, saritutako hautagaien berri emango du.

9. art. ADOSTASUNA

Sarirako izendatutako pertsonak edo erakundeak saria onartzen duela adierazi beharko du.

10. art. SARIEN PUBLIZITATEA

Saritutako saltokiek sari horren berri eman ahal izango dute idazpuru, iragarki eta memorietan, bertan zehaztuz zein urte eta kategoriatan izan ziren aitortuak; eta saria eman ondoren edozein komunikabidetan argitaratu edo zabaldu ahal izango dute.

11.art. “Ekonomia Sustatzea” TRATAMENDUAREN INFORMAZIO KALUSULA

Zure datuak “EKONOMIA SUSTATZEA” tratamenduan sartzen dira; horren arduraduna Getxoko Udala da (Foruak kalea 1, getxolan@getxo.eus) eta honako helburu hauek ditu: udalerriko enpresen sarea bultzatzea, tokiko enpresa-sareari eta ekintzaileei aholkularitza eta prestakuntza ematea, laguntza ekonomikoak eta dirulaguntzak kudeatzea, enpresak dinamizatzea eta ekintzak sustatzea, prospektiba sozioekonomikoa, sustapen ekonomikoko gunen erreserbak kudeatzea, terrazak instalatzeko espazio publikoa okupatzeko espedienteak kudeatu eta izapidetzea, eta sustapen ekonomikoko jarduerak zabaldu, jakinarazi eta zabaltzea. Tratamenduaren oinarri juridikoak interesdunaren adostasuna eta arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzea dira. Datuak honako hauei utzi ahal izango zaizkie: arduradunaren zuzeneko lotura duten erakundeei, sektore publikoko erakundeei eta beste administrazio batzuei, hornitzaileei eta dirulaguntzen datu-base nazionalari. Aldez aurretik baimena izanda, argazkiak edo irudiak argitaratu ahal izango dira sare sozialetan, bideoetan, foiletoetan, web-orrietan, baliabide instituzionaletan, argitalpenetan eta komunikabideetan, karteletan, markesinetan, besteak beste. Bizkaiko Foru Aldundiari ere baimena eman ondoren, datu-kategoria berezikoak (osasuna) laga ahalko zaizkio, baita genero-indarkeriaren eta sexu-esplotazioko salerosketaren delituen biktima izatearenak ere. Titularrak eskubidea du datuak eskuratzeko eta zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko, baita bere datuen trataera mugatzeko edo ukatzeko ere, Udalaren posta helbidera edo datuak@getxo.eus (Datuen Babeserako ordezkaria) helbidera idatzizko jakinarazpen bat bidaliz, bere nortasuna egiaztatzen duen agiri bat sartuta, edo Udalaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen kudeaketa elektronikoa hasiz. Informazio gehiagorako: www.getxo.eus/datuak.